



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia zerbitzua
Servicio de Viticultura y Enología

MAHASTIZAINZAREN EGOERARI BURUZKO TXOSTENA, **2017KO UZTAILAREN 28A. RIOJA ALAVESA ETA ARABAKO** **TXAKOLINA**

Azken egun hauetan egindako kontrolean, Arabako Foru Aldundiaren Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuak egiaztatu du Arabako Errioxako mahastiek itxurazko egoera dutela, oro har, une hauetan. Ekaitzek ur kopuru desberdinak bota dituzte eskualdean baina, nolana ere dela, nahikoa da mahatsa biltzeko sasoiraren artean mahastiek duten beharrak asetzeko. Eskualdeak tenperatura egokiak izan ditu, eta ura azaleko lur geruzetan. Horren ondorioz, hazkunde begetatiboa ugaria izan da, baina nolabait motelduta zikloaren lehenengo urratetatik ageri zen aurrerapen nabarmenarekin alderatuz gero.

Mahasti gehienak orain M1 egoera fenologikoan daude, kolore aldatzean alegia, mahasti batzuetatik beste batzuetara desberdintasun handiak daudela. Mahats mordoak San Prudentzio inguruko izotzen ondoren erne ziren mahastiak mahats mordo itxian daude hozta-hozta. Horrengatik, daramaten bilakaera eta karga urria kontuan hartuz, aurreikus daiteke zikloa osatuko dutela, bilketa apur bat beranduago egin behar bada ere.

Fenologia aldetik, ondoriozta daiteke astebete eta hamar egun bitarteko aurrerapena dagoela.

Beste alde batetik, mahastien osasuna ona da. Gorrin orban batzuk nabaritu dira, baina hemendik aurrera arriskuak bakarrik muturreko kimuetan daude, zeinek ez baitute kalte handirik egiten. Hemendik aurrera tratatu behar izanez gero, kobrea oinarri duten konposatuak erabili beharko dira. Gauza bera gertatzen da oidioarekin: kolore aldatzetik aurrera arriskuak txikiagoak dira, baina komeni da erne jarritzea, mahats mordoak landaretzarik gabe mantenduz, airea eta egiten diren tratamenduak sar daitezten.

Botritisari dagokionez, orain da garaia mahatsa biltzerakoan kalte larriak egin ditzakeen infekzio posible bati aurrea hartzeko. Mahastiak bikorren % 5 edo 10 kolorea aldatuta daukan garaia da unerik eraginkorrena tratamendua egiteko, lehenago beste tratamendu bat egin edo ez.

Mahasti gehienetan sitsaren bigarren belaunadia hegaldia egiten ari da. Ez da ahaztu behar intsektu horrek mahats mordoetan egiten dituen ziztadak botritisaren ahalezko guneak direla eta horrengatik babestuta eduki behar direla mahastiak.

Arreta eman behar zaie beste izurri batzuei ere, hala nola armiarma horia, trips edo eltxo berdea, eta tratamendua egin, jarduteko atalasea gainditzen duten sintomak edo presentzia nabaritzen badira.

Gertatu ohi den bezala, potasio faltarekin loturiko sintomak ikus daitezke mahasti batzuetan: orriarik gazteenak ertzetan gorrituta, gorritasuna zainen arteko zonetarantz sartuz doala. Kasurik larrienetan, orriak ihartuz eta eroriz doaz; horrek berekin dakar ekoizpena eta gradua murriztea eta heldzea atzeratzea. Honelako sintomak nabaritzen direnean, egiaztatu egin behar dira luraren analisisien bidez eta, beharrezkoa baldin bada, lurzoruko mailak zuzendu, urtero ongarriztatuz. Bitartean, sintomak agertzen hasi eta gero, komeni da tratatzea uztailaren erdialdetik aurrera 10en bat eguneko tarteekin 3 edo 4 aplikazio emanez, uretan disolbatutako potasio nitratoz.

Amaitzeko, nabarmendu daiteke haizea eragin batzuk sortzen ari dela eta horrengatik puntak moztea komeni dela. Ekintza hori garrantzi bereziko da berandu erretzen diren mahastietan, zeinetan kimuak bereziki ahulak baitira. Izotzak eragin handia izan zuen mahasti horietan, ez da beharrezkoa orri azalera ekoizpen normalekin uzten dena bezain zabala izatea, karga gutxi daukatela kontuan izanik.

Hilaren 24an, astelehenean, itxita geratu ziren Errioxa Jatorrizko Deitura Kalifikatuaren Kontseilu Arautzaileak kanpainarako ezarritako arauak. Onartutako gehieneko errendimenduak honela sailkatu dira: %70 izotzak eragin handiena izan duen mahastietan, %90 kalte ertainak hartu dituztenetan, eta % 115 eguraldiaren eraso hori jasan ez zuten lursailetan. Era horretan, babestu daitekeen gehieneko errendimendua, kalte larriak hartutako mahastietarako, ha-ko 4.559 kg-taraino ezarri da mahats gorrian, eta ha-ko 6.300 kg-taraino mahats zurian; kalte ertainak hartu dituzten aldeetan, berriz, gehieneko errendimendu horiek 5.850 ha-ko kg-taraino eta ha-ko 8.100 kg-taraino hel litezke, hurrenez hurren. Izotzak mahastiei eragin ez dien lekuetan, hektareako 7.475 kg arte bildu ahal izango da, mahats gorrian, eta hektareako 10.350 kg arte, mahats zurian.

Gainera, babes daitekeen gehieneko errendimenduaren gaineratik ha-ko 325 kg mahats sartu ahal izango da upeltegian, barietate gorrietan, eta hektareako 450 kg mahats, barietate zurietan, mahastiaren hazkunde zikloaren amaieran egoera bereziki ona bada edo. Mahats horrekin egiten den ardoa ez da egongo Jatorri Deituraren babespean eta ezarritako gehieneko epean atera beharko da upeltegietatik.

Mahatsa ardo bihurtzearen errendimendua 100 kg mahatseko 72 litro ardotan ezartzen da.

Arabako Txakolinaren eremuari dagokionez, horretan ere udaberriko itzotzek kalte egin zieten mahasti batzuei eta une honetan L egoera fenologikoan dago (mahatsmordo itxia), zeina egungo garaiari dagokion egoera baita ia-ia. Eremu honetan urtea zaila da izotzagatik, han-hemenkako txingor txiki batzuegatik eta gorrinaren halako eraginagatik. Azken hau orain kontrolpean dago, baina ohi baino jardun gehiago behar izan du. Horrekin guztiarekin, aurreikus daiteke Aiara haran osoan ekoizpena gutxituko dela iazkoarekin alderatuta, Kontseilu Arautzailaren iturriek diotenez.

Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzua